


# BILBOKO FAVORITOAK EZAGUTU



Ospatzen dugu. Bilboko merkataritza ospatzen dugu ☐

Bilboko Favoritoak Bilboko benetako protagonistak aintzatesten dituzte: gure kaleak egunez egun bizitzaz, konponbideez, berrikuntzaz eta etorkizunaz betetzen dituzten saltokiak. Ezagutu 2025ko Bilboko zortzi favoritoak.



## **ETORKIZUNA DUEN TRADIZIOA: MOSEL & ARKAIA**

### "Arimadun diseinua"

**Mosel☐:** Arimadun diseinua. Bere neoi originala eta erakusleioa herrialdeko denda abangoardistenetako baten erakargaririk onenak dira. Diseinu italiarra eta eskandinaviarra artisau-piezekin, zenbakidunekin eta pertsonalizatuekin batera bizi dira, eta espazioa ingurune paregabe bihurtzen dute ☐ (Gran Vía, 53)



## **HEMENGO SHOPPING: SERIE B**

**"Moda urbana eta dinamizazio kulturalerako espazioa, batean"**

**Serie B** "gauzak gertatzen diren" denda horietako bat da. Moda diseinatzaile independenteekin, estilo nordikoarekin eta lerro minimalistekin egiten dute lan. Denda izateaz gain, kultura dinamizatzeko gune aktiboa da, Zazpi Kaleetan duen identitate bakarra indartuz (Lotería, 2)



## **HOBEKIEN KONEKTATUTA: PHASE**

**"40 urte baino gehiago soinuan eta irudian berritzen"**

Soinuaren erromantikotzat eta irudiaren fanatikotzat jotzen dute beren burua. Goi-fideltasunaren, irudiaren eta domotikaren mundua hurbiltzen dute beren sare sozialen bidez, jaurtiketak, luxuzko proiektuak eta beren egunerokoa erakutsiz. Lau hamarkadako ibilbideak sektore horretako erreferenteak izatea bermatzen die Bilbon (Fernández del Campo, 10)



## **OSTALARITZA KONTZEPTU ONENA: MORROCOTUDA**

**"Txoko zirrargarria, tapeorako eta giro onerako."**

**Morrocotuda** □ Kalitate handiko tapeoa, edari aukera bikaina eta diseinu erakargarria ditu nabarmentzekoen artean. Produktu freskoa eta elaborazio sortaileak konbinatzen ditu, Bilboko afterwork eta gozamenerako ezinbesteko topagune bihurtuz □ (Heros, 14)



## **MERKATARITZAN EUSKARAREN SUSTAPENA: GRAFIAZKAR INPRIMATZE DIGITALA**

**"Inprimatzeko azkartasun bat"**


Izenak berak dioenez, azkartasuna da inprimategi honen ezaugarrietako bat, "plis plis" batean konpontzen baititu zure behar grafikoak, enpresa izan edo partikularra izan. Zer nahi duzun ez badakizu, azaldu zer behar duzun eta irtenbiderik onena bilatuko dizute □ (Avda. Txomin Garat, 13, trasera)



## **DENDA BERRIA: STUDIO DEL BOSQUE**

"Sormenaren eta lore diseinuaren oasia."

**Studio del Bosque** natura hirira ekartzen du bere lore sorkuntza paregabeen eta giro inspiratzailearen bidez, tailerrak eta esperientzia artistikoak eskainiz, eta landareak eta diseinua maite dituen komunitate bat sortuz (Zamakola, 59)



## **ZERBITZUEN ENPRESA ONENA: MAURA LUTHIER**

"Non artisautza musika bihurtzen den"

**Maura Luthier** hari-instrumentuen eraikuntzan, mantentze-lanetan eta zaharberitzean oso espezializatuta dagoen tailerra da. Bere zerbitzua, zehatza eta bikaina, kalitaterik handiena bilatzen duten musikari profesionalak eta zaletuek asko baloratzen dute (Lamana, 5 entrada por Dos de Mayo)



## **PREMIO DEL PÚBLICO: PASTERERÍAS MARTINA DE ZURICALDAY BILBAO**

***"Euskadiko artisau-gozotegi zaharrena."***

**Pastererías Martina de Zuricalday** benetako erakunde bat da hirian, eta bi mendez geroztik ezitzen du Bilbo. Belaunaldiak eta belaunaldiak hazi egin dira gurin-opilekin eta su motelean labean egindako arroz-pastelekin (Ercilla, 43 · Plaza San José, 3 · Rodríguez Arias, 48 · Dr. Areilza, 38)